

2011KO ESAERA ZAHARREN INTERPRETAZIO BAT (MENTURAZ, EZ ONENA)

1. ALPERRA BETI DAGO PENTSATEN BEHARREN DABILENA EZTALA KANTSATEN

Alperra: alferra / Pentsaten: pentsatzen / Beharren: beharrear, lanean / Eztala: ez dela

Denok izaten ditugu neurtzeko modu bi: bata, geure buruarentzat; bestea, gainontzeko jendearentzat. Beraz, alferrek (oso berekoiak direlako) uste ohi dute beste mundu guztiak (edonor, beraiek izan ezik) “gozatu” egiten duela lanean.

2. APIRILA HOTZ, EZ GARI EZ AGOTZ

Agotz: ahotz (“paja, cascarilla de trigo”)

Apirilean hotz egiten duenean, laboreak (zerealak) galdu egiten dira, eta uzta txarra izaten da.

3. ARDIAK BEEKA EGONIK, EZ DU JATEN BELARRIK

Beeka: “bee” egiten

Bestelako kontuetan denbora galtzen bazabiltza, ez duzu astirik/aukerarik izango gauza garrantzitsuak egiteko.

4. ARRANTZALEAK EZ DU ERABILTZEN URREZKO AMURIK

Ez erabili indar edo baliabide handirik arazo txikiak konpontzeko. Ez du merezi. Gaztelaniaz: “no se cazan las moscas a cañonazos”.

5. ASTO BATEK BAINO BIK GEHIAGO DAKIE

Dakie: dakite

Astoak ez omen dira oso abere argiak; hala ere, bi batzen badira, hobeto pentsatuko dute bakar batek baino. Pertsonentzat ere balio du, jakina (zuzentzat ere bai).

6. ASTOAK ARNOA EKARTZEN ETA URA EDATEN

Arnoa: ardoa

Astoak egiten du lana, baina etekinak beste batzuek eramaten dute eta astoarentzat sari ziztrina baino ez da geratzen. Karl Marx filosofoak dotoreago izendatu zuen kontzeptua: “plusbalioa”.

7. AZERI ZAHARRAK TRANPIAN TXIZA

Tranpian: tranpan

Astoak ez bezala, azeriak benetan adimentsuak izaten dira, eta ez da batere erraza beraiei ziria sartzea. Zahartzen direnean, gainera, esperientzia pilotzen dute, eta are zailagoa da, orduan, engainatzea. Beraz, azeri zahar bati tranpa ipintzen badiozu berau harrapatzekotan, oso posible da zure ahaleginak huts egitea (zure asmoa ez bada azerien gernu-analisia egitea, behintzat).

8. BAGENDU ZEREKIN, BADA KIGU NOLA

Bagendu: bagenu, edukiko bagenu, bageneuka (EGAtik gora).

Maiz, arazoa ez da jakitea nola egiten den zerbait, baizik eta egiteko behar diren baliabideak eskura izatea. Guk, adibidez, Barakaldoko BECen ospatu nahi genuke Esaera zaharren txapelketa baina, gure aurrekontuarekin, bertako kafetegiko mahai bat soilik alokatu ahal dugu.

9. BARATXURIA ZAZPI GAITZEN KONTRAKO JANARIA

Baratxuria: berakatza / Gaitz: gaixotasun, kalte

Baratxuria jaki aproposa omen da gaixotasun asko osatzeko (edo prebenitzeko).

10. BAT EMAN ETA BI HARTU, GURE ETXEAN EZ BERRIZ SARTU

Beste pertsona batekin dituzun harremanak ekonomikoki kaltegarriak badira zuretzat, apurto erlazio horiek.

11. BEHARDUNEZ URRIKALTZEA ONGI, LAGUNTZEA HOBEBE

Behardun: beharra duena (“necesitado/a”) / Urrikaltzea: errukitu, gupidatu (“compadecerse”).

Oso ondo dago eta zinez polita da gupida sentitzea besteen arazoengatik; are hobe eta politagoa da, ordea, besteei laguntzea arazo horiek konpontzen.

12. BEHARRIK GABE EROSLA BETI KAROEGI

Karoegi: garestiegi

Beharrik izan gabe erosten duguna da garestiena: dirua galtzea da, etekinik atera gabe.

13. BELEARI ERE EDER ZAIO BERE AHOTSA

Gu gara onenak, eta egiten dugun guztia ondo eginda dago. Hori uste dugu, behintzat. Bitxia da, baina oso kritikoa gara besteekin; batere ez, geure buruarekin.

14. BERAK ESAN ETA BERAK BARRE, ARINAREN SEINALE

Norbaitek barre egiten badu bere txisteekin, seinale ez dela oso pertsona ganorazkoa (tontoa ez esateagatik).

15. BETI BEHARREN TA KAKA MORRALEN

Beharren: beharreen, lanean / Morralen: zorroan

Gutako askok lan, lan eta lan egiten dugu, baina azkenean ez dugu onura askorik lortzen. Beste batzuk alderantziz dabilta, baina egoera hori beste esaera zahar batzuei dagokie.

16. BETI ON NAHI DUENA, MAIZ GAIZKI

Maiz: askotan, sarritan / Gaizki: txarto

Kontuz amets politegiak izatearekin! Zaila da horrelakoak betetzea eta, espero duguna eta daukaguna konparatzean, errealitatea oso krudela irudituko zaigu.

17. BILA BERRIA, EZ BERRIKERIA

Berrikeria: ezer onik ez dakarren berritasuna (“modernidad”, despectivamente)

Txalogarria da berrikuntzak egitea, baina pasatu gabe. Gauza bat ez da ona bakarrik berria izateagatik: aurrekoak baino hobe izan behar du; bestela, ez du ezertarako balio.

18. BISITAZ HELDU DIREN GUZIEK EGITEN DAUTZUTE ATSEGIN, JITEAN EZ BADA JOAITEAN

Guziek: guztiek / Dautzute: dizute / Jitean: etortzean

Bisita duzunean, bi aukera daude: gustukoa izatea edo ez. Gustukoa bada, poz handia emango dizu datorrenean; gustukoa ez bada, poz handia emango dizu ospa egitean. Azkenean, beti gustura.

19. BIZARRAK EZTAU EGITEN GIZONA

Eztau: ez du

Gizonezkoen aurpegiko ileak, noski, ileak baino ez dira. Ez dute adierazten ez heldutasunik, ez nortasun garaturik, ez jakinduriarik, ez ezer (nire kasuan izan ezik, jakina: ikus 13. esaera).

20. BUZTANA LASTOZKOA DUENA SUAREN BELDUR

Denok ditugu ahulguneak. Beraz, komeni da guretzat arriskutsuak diren egoeretatik alde egitea, badaezpada ere.

21. DANBOLIN ORDAINDUAK SOINU TXARRA JOTZEN DU

Zerbait egiten badugu guk nahi dugulako (apeta dugulako), askoz hobeto jarduten dugu, besteen aginduz eginez gero baino, nahiz eta horren truke dirua jaso.

22. DEBALDE EDAN BEHAR DUENAK HITZ GUTXI

Debalde: doan, dohainik, musu-truk

Besteek zu gonbidatzea nahi baduzu, izan diskretua, ez molestatu eta ez hanka sartu.

23. DEKONAK ERAKUSTEN DAU

Dekonak: daukanak / Dau: du

Zerbait polita daukanak eskubide morala du berori erakusteko.

24. DEUS EZ: BEGIAN ON DA, SAKELAN EZ

Deus ez: ezer ez / Sakelan: poltsikoan

Dena da erlatiboa (ez naiz ari “-(e)n” forma gramatikalaz, lasai): leku, une, egoera, konpainia, ohitura edo helburuaren arabera, hitz edo ekintza bera guztiz egokia edo erabat desegokia izan daiteke. Adibidez, ona da ezer ez izatea begian, baina txar-txarra da poltsikoan ezer ez edukitzea.

25. DIRU ASKO MINGAINEZ, POLTSAN BAT EZ

Mingainez: mihiaren bidez

Handikeriak esateko joera izaten dugu, besteek pentsa dezaten garena baino gehiago garela (diruari buruz hitz egitean, batik bat).

26. DIRUAK PAUSO BI JAUAK/N: ETORTEKO SOSEGUA ETA JOATEKO BIZKORRA

Jaukak/n: dauka (alokutiboan) / Eorteko: etortzeko / Sosegua: lasaitasuna, patxada

Dirua oso motel ailegatzen da guregana, baina oso azkar joaten da guregandik. Antza, ez du gure ondoan luzaro egon nahi.

27. DOKUMENTU, DOKUMENTU DA

Akordio edo kontratuak errazago betetzen dira idatzita badaude. Dokumentuak betiko ohi dira, hitzak ez bezala.

28. DONOSTIAN DONOSTI, GOROSTIAN GOROSTI

Donostia: Gipuzkoako hiriburua / Gorosti: Ilex aquifolium zuhaixka (gazelaniaz, “acebo”)

Herri bakoitzak bere ohiturak ditu.

29. DRINGILON DON, BATAREN GAITZA BESTEEN ON

Zuretzat kaltegarria dena, ona izan daiteke niretzat.

30. EGIAZKO LAGUNA, BETIKO

Laguna benetakoa bada, beti izango duzu ondoan, zuri laguntzeko prest. Benetakoa ez bada, ostera, abandonatu egingo zaitu unerren batean.

31. EGURRA, BI ALDIZ NEURTU ETA BEHIN MOZTU

Edozein egitasmo nahi bezala atera dadin, joka ezazu honela: ezer egin baino lehen, ondo-ondo pentsatu; gauzatzeko orduan, ahalik eta azkarren ibili, denbora galdu gabe.

32. EGUZKIAK URINA GURITZEN ETA BUZTINA GOGORTZEN

Urina: gurina, gantza, koipea / Guritu: bigundu

Eguzkia bakarra dago, guztiontzat berbera. Hala ere, ondorio ezberdinak sortzen ditu, eguzkitan dagoenaren arabera.

33. EHIZTARI TXARRAK, ESKOPETARI ERRUA

Jende gutxi onartzen ditu beraren akatsak. Horrela, besteren bati leporatzen diogu gure hutsen ardura.

34. EMAZTEKIAK ITZALA IDURI: SEGI ZAZU, IHESI DOA; IHES EGIOZU, ONDOTIK DUZU

Emazteki: emakume / Iduri: iruditu / Zazu: ezazu

Gizonon iritziz, emakumeak izaki paradoxikoak dira: beti-beti nahi dugunaren kontrakoa egiten dute (burutsuak diren seinale, bestalde).

35. ERRETZ TXARRAZ, BAZTERRAK NARRATS

Erretz: erratz, ginarra, eskoba / Narrats: narras, zikin, lohi

Kalitate gutxi tresnak erabiltzen badituzu, normala da emaitza txarrak lortzea.

36. ERRENKURA TARTEN DALA, BESTE DANAREN AKORDURIEZ

Errenkura: arrangura, gorroto / Tarten: tartean / Danaren: denaren, guztiaren / Akorduriez: akordurik ere ez, gogoratu ere ez

Gorrotoak betetzen gaituenean, ez dugu besterik ikusten; ez gara ezertaz gogoratzen, gorroto diogun horretaz izan ezik.

37. ESAK/N NOREKIN HABIEN, ESANGO DI(N)AT NOR HAIZEN

Esak/n: esan ezazu (hika) / di(n)at: dizut (hika)

Jendeak antzeko pertsonak bilatzen ditu beraiekin elkartzeko. Hortaz, nahikoa omen da pertsona baten lagunak ezagutzea pertsona hori nolakoa den igartzeko.

Gaztelaniaz: "Dime con quién andas y te diré quién eres"

38. ETXEAN GATZA UGARI DAGOELA ETA, EZ DEZAZULA BAZKARIA GEHIEGI GAZITU

Dezazula: ezazu, egizu

Zerbaitetik asko edukitzea ez da arrazoi nahikoa gehiegi gastatzeko.

39. ETXEKO SUA ETXEKO HAUTSAZ ESTAL

Familiako arazoak familia barruan konpondu behar dira, etxetik kanpora eraman gabe.

40. EZ DIRA DOZENAN HAMAIRU

Egia batzuk guztiz objektiboak dira, eta ez dute tarterik uzten zalantzarako. (gutxi gorabehera, 24. esaeraren kontrakoa)

41. EZ DU IRAUTEN SOINEKOAK GORPUTZAK ADINA.

Adina: beste (konparazioetan)

Ez hartu maitasun handiegirik zeure inguruko gauzei, zu baino lehenago desagertuko dira-eta.

42. EZKONGAIETAN GOXO, EZKONDU TA OTSO

Ezkondu aurretik, oso ondo konpontzen dira ezkongaiak, eta dena da maitasuna eta irriak. Normala, bietako bakoitza bere alderdirik onena erakusten saiatzen delako. Gero, ezkondukoan, elkarrekin bizitzen hasita (lehen, ezkondu arte ez ziren hasten batera bizitzen), benetako nortasun, akats eta hutsuneak hasten dira nabaritzen.

43. GAITZA, ONGI HATOR, BALDIN BAKAR BAHATOR

Arazo bakarra sortzen bazaigu, gaitz erdi! Normalean, binaka edo hirunaka etortzen dira.

44. GAIZTOAK NAHI DUN ARTE ONAREN BIZIA

Dun: duen

Pertsona gaiztoek kontrolatzen dute, sarritan, onen bizitza.

45. GARBI ESANDA, TXAKURRAK ERE ULERTZEN DU

Besteek uler diezazuten nahi baduzu, hitz egin ezazu argi eta garbi. Horrela, komunikazio-arazorik ez da izango.

46. GAUA, GOGAPENEN AMA

Gogapen: gogoeta, pentsamendu

Erabaki larriren bat hartu behar baduzu edo gai sakonetan pentsatzeko unea bilatzen baduzu, gaua izaten da momenturik onena: zaratarik ez, lasaitasuna...

47. GAUZA GUZTIETAN NEURRI BAT BADA

Proportzioa beti da ona, edozertan eta edonon. Proportzioa ez errespetatzea, ostera, (gehiegigatik edo gutxieigatik) beti izango da kaltegarria.

48. GOSEA ONA, ZER JAN EUKI EZKERO

Euki ezkerro: edukiz gero

Gosea behar naturala da, eta oso ona, asetzeko biderik baduzu. Bestela, arazo bihurtzen da.

49. GUTI IKUSI, GUTI IKASI

Guti: gutxi

Ikasteko, ikusi egin behar da. Zenbat eta gauza gehiago ikusi (lekuak, monumentuak, filmak, dokumentalak, ohiturak, liburuak), orduan eta gehiago jakingo duzu bizitzaz, munduaz, esaera zaharrez eta pertsoez.

50. GUTXI KOSTA, GUTXI ESTIMA

Gehiago preziatzen dugu asko kostatu zaiguna ezen ez merke edo ahalegin berezirik gabe lortutakoa.

51. HANDIAK, TXIKIA AHANTZARAZTEN

Ahantzarazi: ahantzi (ahaztu) + arazi, "hacer olvidar"

Arazo edo gertaera handiek ahantzurara baztertzen dituzte kontu txikiak.

52. HARTU TE HARTU MUNDUE AKABAU

Te: eta / Akabau: akabatu, amaitu, bukatu

Ezer ez da betiko. Beraz, hartu eta hartu arituz gero, azkenean amaitu egingo da. Gaztelaniaz: "Quita y no pon, se acabó el montón".

53. HAURRAREN DRETZOETAN SAKRATUENETARIK BAT: ARBASOEN MINTZAIRA

Dretxo: eskubide / Mintzaira: hizkuntza

Ume bati ezin zaio kendu ama-hizkuntza, guraso/arbasoengandik jaso duen ondare preziatua baita (hori bai, gaztelaniaren zale batzuek guztiz alderantziz ulertzen dute eskubide hori, euren seme-alabek euskara ez ikasteko).

54. HORREK INORI TXARRIK EZ, BAINA LAGUNDU BEZ

Bez: ere ez

Pertsona batzuk ez dira ez gaiztoak, ezta onak ere. Hau da: ez diote ezer txarrik egiten inori, baina lagundu ere ez. Horrela ikusita, pentsa daiteke neutralak direla, baina ez da egia: laguntzen ez zaituena zure aurka ari da, nahiz eta gaiztakeriarik egin ez.

55. IGAROA, IGARO

Igaro: pasatu

Pasatu dena pasatu da jada, eta ez dago ezer egiterik horren kontra. Gaztelaniaz: “A buenas horas, mangas verdes”.

56. INOREN ZER ESANGOAK LOTZEN DIZKIZU ZANGOAK

Zer esangoa: besteek zer esango duten / Zango: hanka, berna

Askotan, badugu zerbait egiteko gogo, baina ez dugu egiten beldur garelako besteek zer esango duten. Hau da: besteen komentario posibleek kikiltzen gaituzte.

57. IRAINIK EZ EMAN INORI

Irain: laido, mesprezu, destaina, arbuio, umiliazio.

Printzipioz, gizaki guztiok gara berdinak eta eskubide berberak ditugu. Hortaz, ez pentsa beste inor baino hobea edo gehiago zarenik, eta ez iezaiozu inori irainik bota (ezta inork zuri ere). Gainera, irainek borrokak, gorrotoak eta arazoak baino ez dakartzate.

58. JAKINDUNEN ARTEAN DABILENA, JAKINDUN

Entzun eta ikusten duguna ikasten dugu. Beraz, asko dakien jendearekin ibiltzen denak gauza asko eta onak ikusten/entzuten ditu, eta berak ere asko ikasiko du azkenean. Nolabait, 37. esaeraren ondorioztat ere har daiteke.

59. JAKINDURIAK MUGAK DITU; EZJAKINTASUNAK EZ

Ezinezkoa da den-dena jakitea, baina hori ondo dakite jakintsuek. Ezer ez dakiteneak, ordea, imajinatu ere ez dute egiten zenbat gauza ez dakiten, eta guztia dakitela pentsatzen dute. Horregatik, jakintsua isildu egingo da zerbait ez dakienean; arlosteak, berriz, edozer botako du, eta gainera uste izango du zuzen dabilela.

60. JATEK EZTAU ETXE GALTZEN; EDATEK ETA JOKOK

Eztau: ez du

Oinarrizko betebeharrak (jatea, edatea...) egunero daude hor, eta ezin diegu alde egin; hala ere, ez dira benetan garestiak, nahikoarekin konformatzen bagara, jakina. Bestelako gastuak izaten dira kaltegarriagoak: batetik, ditu gehiago behar dutelako; bestetik, onurarik batere ekartzen ez dutelako. Hortaz, benetako premiak asetzeak ez gaitu pobreziara eramango, baina bai aparteko gastu inozoek, kontrolatu ezean.

61. KANPOKOAK ZUHURTZAT ETA ETXEKOAK IÑUZENTETZAT

Joera dugu pentsatzeko kanpoko jendea azkarragoa dela gure ingurukoa baino. Batzuetan, hala izango da, baina ez beti.

62. KATILUAN ZEIN ITSASOAN, ITOTZEA BETI ITOTZE

Nola gertatzen den baino, garrantzi handiagoa du zer gertatzen den. Hau da, ekintzak du axola, eta ez zirkunstantziek. Kasu honetan, itotzea da inportantea, lazgarria; non gertatu den, ostera, bigarren mailako kontua da.

63. LANAK EZ DU LOTSİK

Lotsik: lotsarik

Lan egiten baduzu, ez duzu lotsarik sentitu behar, egin behar duzuna egiten ari zarelako.

64. LANGILE ONARI ZOR ZAIO SARI

Zor izan: zorra eduki, “deber, tener deuda”

Lan onak sari ona merezi du (edozein sozialdemokratak sinatuko luke hau).

65. LOTSABAKOARI LOTSABAKO T'ERDI.

Lotsabako: lotsagabe / T'erdı: eta erdi

Lotsarik ez duenak horixe bera merezi du: inolako lotsarik gabe erantzutea.

Gaztelaniaz: “Si quieres taza, taza y media”.

66. LUR BIGUNEAN, ZULO HANDIA

Egoerak baldintzatzen ditu ekintzak. Horrela, errazagoa da zuloak egitea lurrian, hau bigun badago, eta alderantziz (lurra gogorturik badago, zulo txikiagoak egin ahal izango ditugu). Komeni da, beraz, aukera onak baliatzea.

67. MAHATS-ARNO DOIAK DITU FLAKOAK AZKARTZEN; SOBERAK AZKARRAK FLAKATZEN

Arno: ardo / Doi: nahiko / Flako: ahul / Azkartu: indartu / Sobera: gehiegi / Azkar: indartsu / Flakatu: ahuldu

Ardo apur batek indarra ematen die pertsona ahulei; ardo gehiegik, aldiz, ahuldu egiten du pertsona indartsua. Ziur zeuk ere sentitu dituzula inoiz ardoaren ondorio horiek, onerako edo txarrerako.

68. MAITATZAILERIK: EZ OTOIZTURIK, EZ BORTXATURIK

Otoizturik: erreguturik, eskaturik, eskatuta / Bortxaturik: derrigorturik, obligaturik
Bihotzeko kontuetan, bi gauza ezin dira egin maitasuna lortzeko: erregutzea (hots, maite duzun pertsonaren azpitik ipintzea), eta indarra erabiltzea (hots, “maite” duzun pertsonaren gainetik jartzea). Benetako maitasuna loratzen da bi pertsonak maila berean, berdintasunean, daudenean. Bestela, ez dago amodiorik, menpekotasunezko erlazioa baizik.

69. MAITE DAUANARI APOA IZAR.

Dauanari: duenari

Maitasunak errealitatea beste modu batean ikusarazten digu: perspektiba galdu eta dena filtro berezi batetik ikusten dugu. Horrela, bihotzak esaten digu zer den ederra eta zer, eta kasurik ez diegu egiten begiei.

70. MARTXOAN HAIZE, SAGARDIAN LORE

Martxoan haizea ibiltzen bada, hobeto loratuko dira sagarrondoak, eta sagar hobeak aterako dira (beraz, nire interesei begira, sagardo gehiago eta gozoagoa).

71. NAGIA BETI NEKATUA

Nagi: alfer, gibel handi, “haragán/a, vago/a, holgazán/a, perezoso/a”

Bitxia bada ere, alferrak lehenago nekatzen dira beste edonoren aldean. Ohitura ezagatik izango da, ziur aski. Kasualitatez, goizeko 12:13 dira orain, eta ni oso-oso kantsatuta nago dagoeneko. Inork nahi du kafe bat hartzera joan nirekin?

72. NAHIAGO DUT “TO” BAT HAMABI “EMANGO DI(N)AT” BAINO

To: tori, hartu / di(n)at: dizut, hika

Promesak oso politak dira, baina hobe da zerbait jasotzea, mila promesa entzutea baino.

Gaztelaniaz: “Más vale pajarero en mano que ciento volando”.

73. NAHIKIDE EZ DA ADISKIDE

Nahikide: zuk nahi duzun gauza bera nahi duena

Helburu berberak dituztenak sekula ez dira elkarren lagunak izango, laster arerio bihurtuko baitira. Adibidez, nola izango dira adiskideak Esaera Zaharren Txapelketa txit gorenaren irabazi gura duten taldeak? Ezinezkoa!

74. NI TXAPELGINTZAN HASIKO BANINTZ UMEAK BURURIK GABE JAIOKO LIRATEKE

Zorte txarra kontuan hartzeko faktorea da, negozioetan zein bestelakoetan.

Gaztelaniaz: “Si montara un circo, me crecerían los enanos”.

75. NOR BERE ZOROAK BIZI DU

Pertsona bakoitza aparteko mundu bat da, eta guztiok ditugu mania, fobia, ohitura, zaletasun, konplexu, berezitasun eta kontu arraro ezberdinak. José Ortega y Gasset-ek esan zuen moduan (bai, pertsona bakarra zen): “Ni eta nire zirkunstantziak naiz ni”.

76. NORBERETZAKO GURE EZTANA ETXAKO INORI EMOTEN

Norberetzako: norberarentzat / Gure: gura, nahi / Eztana: ez dena / Etxako: ez jako, ez zaio / Emon: eman

Ez eman inori zeuretzat nahi ez duzunik. Zuk ez baduzu gura, zergatik nahi izango dute besteek?

77. OHAKOAN DENA IKASTEN, EZ DA JAGOITI AHAZTEN

Ohako: sehaska / Jagoiti: hortik aurrera

Txiki-txikitan ikasten dugun guztia ez omen da inoiz ahazten. Izango da umetan oso memoria ona dugulako?

78. OHE BEROAK ASKARI HOTZ

Dena ez da posible: siesta orduan ohean geratzea aukeratzen baduzu, ez duzu topatuko askaria bero.

79. OLIOA ETA EGIA DOATZA GAINERA

Doatza: doaz

Azkenean, egiak jakiten dira, gezurren azpitik ateratzen direlako. Olioaren bezala, uretan dagoenean.

80. ON DAIGULA JANAK, GAITZIK EZ EDANAK

On daigula: on egin diezagula, “que nos haga bien” / gaitz: kalte, “mal”

Bizitzen segitzeko eta osasuntsu egoteko jaten dugu; beraz, normala da jateak on egitea. Edatea, berriz, kaltegarria izaten da (alkoholaz ari naiz, jakina), baina ez dugu nahi izaten hori gertatzerik.

81. ON ITTETIK EZTATOR KALTERIK

Ittetik: egitetik / Eztator: ez dator

Gauzak ondo egitea edo besteei on egitea (laguntzea) ezin dira, inola ere, txarrak izan. Beraz, badakizu.

82. OTO TA OTOKAR, BIDEAK ISTRIPU DAKAR

Oto: auto / Otokar: autokar

Abiadura dela eta, autoek arriskua dute. Autoz bazabiltza, beraz, istripua izan dezakezu (arriskua areagotu egiten da gidatzeko moduan ez bazaude, jakina). Soluzioa? Ahal denean, oinez (edo txirringaz) joatea.

83. OTSOAK JAN ALA ARTZAINAK JAN, BILDOTSARENTZAT BERDINTSU

Bildots: arkume, axuri (ardiaren kumea)

Kalte egiten badizute, berdin dio nork egin dizun. Kaltea bera da inportanteena.

84. PENAREN KAMELOA, ESPERANTZA

Pena sentitzen dugunean, esperantza (edo itxaropena) da geratzen zaigun kontsolamendu bakarra.

85. SABELAK EGITEAN GUR-GUR, BARTEKO AFARIAK AGUR

Bart: atzo gauean

Sabelak gur-gur egiten duenean, berriro janaria behar duen seinale.

86. SALATARI, MALATARI, UZKI-XILO MILIKARI

Uzki-Xilo: ipurdiko zuloa / Milikari: milikatzen, miazkatzen duena

Egon badaude pertsona batzuk beti boteretsuen alboan egoten direnak, ama ere saldu edo edozein txarkeria egingo luketenak agintea dutenen zerbitzura jarraitzearren.

87. SALDA HOTZA ETA ARDO BEROA, GAUZA EROA

Denak du bere neurria eta bere modu egokia. Adibidez, salda bero eta ardo fresko edan ohi ditugu, horrela baitaude ondoen. Kontrakoa egitea erokeria da (edo gustu txarra).

88. SANTUTASUN ETA DIRU, HAMARRETIK HIRU

Ezagutzen duzue aberatsa den pertsona on-onik? Eta on-ona den aberatsik? Ez? Lasai, nik ere ez.

89. SENAR JELOSKORRA, HOBE ITSU ETA GORRA

Jelosiek elkarbizitza suntsitzen dute. Horregatik, hobe da ikusten eta entzuten ez duen senarra edukitzea. Horrek arazo gutxiago sortuko dio emazteari, eta lasaiago biziko dira biak.

90. TANTAKA-TANTAKA UPELA BETE

Upela handi-handia da, eta tantak txiki-txikiak. Hala ere, uzten baduzu upela itoginaren azpian, azkenean, bete egingo da upela. Hau da, apurka-apurka edozer lor daiteke, baita zailena ere.

91. TITIEN MENDE GIZONA, MODAREN MENDE TITIAK

Argi dago gizon asko, imanak burdina bezala, erakartzen gaituztela emakumeek. Ados, baina haiek ere ez daude libre tentazioetatik.

92. TOKIAN TOKIKO GISA

Gisa: bezala

Zoazen lekura zoazela, saia zaitetz bertakoak bezala jokatzeko. Hots, errespetatu zauden lekuko jendearen bizimoldea eta egokitu zaitetz horretara.

Gaztelaniaz: "Allá donde fueres, haz lo que vieres".

93. TRESNAK JABEA DIRUDI

Guk gauzak erabili beharrean, ematen du askotan gauzek maneiatzen gaituztela gu, eurek agintzen baitute.

94. URKATUAREN ETXEAN EZ AIPA SOKARIK

Norekin eta non zauden egizu kontu hitz egin baino lehen, inor ez mintzeko edo molestatzeko.

95. URTEAK ZINTZURRA LUZE

Zintzur: eztarri

Urtebete oso epe luzea da, eta batek daki denbora horretan zenbat gauza (dirua, janaria, arropa...) beharko duzun. Horregatik, ez parrastatu daukazuna urte hasieran, gerta baitaiteke gastatu duzun hori gero behar izatea.

96. XINAURRIENTZAT, IHINTZA UHOLDE

Xinaurri: inurri / Ihintz: garo, "rocio"

Ihintza ur-tanta ñimiñoek osatzen dute, baina tanta horiek erraldoiak dira inurri batentzat. Hau da: dena da erlatiboa, bakoitzaren egoeraren arabera.

97. ZAKU HUTSA EZ ZUTIK EGOITEN

Zutik egoteko, zakuak zerbait eduki behar du barruan. Hutsik dauden gauzak (objektuak, ideologiak, ikurrak...) lurrera doaz laster.

98. ZAPATAK ZAPATA JAGOTEN DU, ABARKAK ABARKA EZ

Jagon: zaindu

Aberatsek elkarri lagundu ohi diote; ez horrela pobreek.

99. ZENBAIT ALDIZ, ON DUGU DAZKIGUNEN AHANZTEA

Dazkigunen ahanztea: dakizkigunak ahaztea

Beti ez da ona dakigun guztia gogoratzea, dela oroitzapena txarra delako, dela kalte egingo digulako, dela une horretan komeni ez delako. Amnesia ez da beti kalterako.

100. ZU HANDI, TA NI HANDI, NORK GURI AFARIA JARRI?

Urguiluak agintzen duenena, zaila da probetxuzko ezer egitea. Umiltasun apur bat, aldiz, ona izaten da lan egiteko eta hobeto bizitzeko.